

**Herensugeak
piztu du
zoramena**

Irurarrak, jaietan
murgilduta ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2005-09-24 ▶ III. urtea ▶ 694. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Kirolean ere euskarak bere tartea izan dezan aldarrikatu dute

TOLOSA ▶ 'Jarri sasoian korrika' izeneko liburua aurkeztu dute, Ritxi Lizartzak euskaratutako lana ▶ 2



Aurkezpenean parte hartu zuten kirolariak eta politikariak, Usabal kirol eta aisialdi gunean. N. LATABURU

TOLOSA ▶

Miralles: «Disfuntzioak hirietan bizitzerako unean sortzen dira»

Mugikortasuna eta generoa izan ditu ardatz adituak, Mugikortasun Astean ▶ 3

ZIZURKIL ▶

Galtzagorri haur txokoa martxan, helburu hezitzaileekin

Eskola orduak hasi baino lehen eta amaitu ondoren eskaintzen du zerbitzua, Otañon ▶ 4



Gaztetxoak, jolasean. I. GARCIA

BIDEGOIAN ▶

Azokarekin ekingo diote, bihar, XVI. Kultur Asteari

Hitzaldiak, proiektzioak, antzerkia... antolatu dituzte larunbata bitarte ▶ 5

LEITZA ▶

I. Leitza Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira bihar

Sei mailetako bikoteak lehiatuko dira Amazabal pilotalekuan ▶ 7

INGELES

- 8 urtetik aurrera
- Maila guztiak
- Hasiera: Urriak 3

AZKEN PLAZAK
BENETAN

JAKON

Tel. 943-652372
(10:00-12:00 eta 16:30-20:30)
GOROSABEL 2 1º
(TRIANGULOAN)
TOLOSA

KULTURA ▶

NOELIA LATABURU

Herenegun arratsaldean egin zuten *Jarri sasoiaren korrika* liburuaren aurkezpen ekitaldia, Usabal kiroldegi berrian. Bertan izan ziren Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, Fernando Tapia Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua, Iñaki Arratibel kirol medikua, Armando Roca atleta beterranoa, Maider Gaztañaga atleta, eta Ritxi Lizartza liburuaren itzultzailea. Hauek laguntzen Maria Olarra eta Txiki Plazas maratoilaria, Xabier Arratibel atleta, Andoni Imaz Kirol zinegotzia, Iñaki Azaldegia Euskara teknikaria eta Gorka Etxeberria Tolosako entrenatzailea ohia izan ziren. Liburuaren hasi nahi dutenentzako gida da, «euskaraz egina eta euskaraz lantzeko». Tolosako Udalaren ekimena izan da, Foru Aldundiaren laguntzarekin aurrera ateratakoa.

Guztiekin produktua euskaraz izatearen garrantzia azpimarratu zuten, euskara bizitzako alor guztietara zabaldu ahal izateko. «Liburu hau opari bat da Udaleko Euskara sailetik, aisian ere euskarak bere tartea izan dezan; izan ere, euskarak ez du mugarik bizitzako arlo guztietan», azaldu zuen Onintza Lasak, antzeko proiektu gehiago izango direla iragarri.

Foru Aldundiko Gizarte eta Harremanetarako diputatu Fernando Tapiak ere hartu zuen hitza aurkezpenean. 1993an Debarroko zenbait udalek *Kirola euskaraz* ekimenaren bitartez egin zuten ahalgina ekarri zuen gogora. «Horren lekukoetako bat aurkezten ari garen liburu da; bertan sinatutako helburuak denborarekin zabalitzen eta sendotzen ari gara», azaldu zuen diputatuak. Tolosako Udalarik euskararekiko hartu duen konpromisoa eskertu nahi izan zion, ez baita liburu hau euskeratzen duen lehena; Bob Andersonen *Luze-luze* izan zen honetan aintzindari.

Ez ziren, ordea, bi hauek liburuaren gainean jardun zuten bakarrak izan. Bertan izan zen Armando Roca atleta beterranoa, oraintsu munduko txapelketan domina irabazitakoa. Kirola egitearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen berak, bere esperientzia oinarri-

'Jarri sasoiaren korrika', kirolean ere euskarak bere tartea izan dezan

Herenegun aurkeztu zuten politikariek eta kirolariek Ritxi Lizartzak euskaraturiko liburuak; salgai dago 8 euroren truke



Herenegun arratsaldean *Jarri sasoiaren korrika* liburuaren aurkezpena izan zirenak, Usabalen. NOELIA LATABURU

RITXI LIZARTZA LIBURUAREN ITZULTZAILEA

«Gozamina izan da horrelako liburua itzuli ahal izatea; arina da, eta egunero erabiltzeko modukoa»

tzat hartuz. «Lagunminak egin ditut azken txapelketa honetan eta, gainera, kirola egiten duen pertsona hobeto sentitzen da umorez zein gorputzez, eta bizitza baikorrago ikusten du». Bide beretik jarraitu zion Maider Gaztañaga atletak, eta Roca-ren ilusioa mantentzea gus-tatuko litzaiokeela esan zuen, beti ere euskarak liburu honetan duen gailentasuna ahan-tzi gabe.

Arratsaldeko beste protagonista liburuaren itzultzailea izan zen, Ritxi Lizartza, hain zuzen ere. Bere hitzetan, «gozamina izan da horrelako liburu itzuli ahal izatea; arina da,

IÑAKI ARRATIBEL KIROL MEDIKUA

«Liburuaren mamia asko gustatu zait; izan ere, sinplea izaki, puntu sakonak aztertzen ditu kirolari berrientzat»

oso didaktikoa eta egunero erabiltzeko modukoa». Jendeak bertan bere oharrak biltzeko pentsatuta dago eta batik bat, euskaraz kirola egin nahi dutenen eskubidea aldarrikatzea du jomuga.

Liburu «arina eta sakona»

Korrika hasi nahi dutenentzako liburu da ondokoa. Iñaki Arratibel kirol medikuaren esanetan, «liburuaren mamia gustatu zait, sinplea izaki, puntu sakonak aztertzen ditu eta». Kirola egiten hasterakoan norberak bere gorputzaren baldintzak eta mugak ondo eza-

ONINTZA LASA EUSKARA ZINEGOTZIA

«Euskara sailak egiten duen oparixoa da liburu hau, kiroldegiaren ere euskarak bere espazioa izan dezan»

gutzea ezinbestekoa dela azaldu zuen medikuak. Dietario moduan dago aurkeztuta *Jarri sasoiaren korrika*, eta kirol oso hau praktikatzeko oinarriko aholkuak ematen ditu. Halaber, lasterketa modalitateak egite-rakoan ohiko diren arazoaren berri ematen du. Hamar astean bete beharreko programa aurkezten du. «Behobia gerturatzeko» azaldu zuen Onintza Lasak. Iaz Tolosaldeko jende andanak hartu zuen parte lasterketa honetan, eta haien laguntza lagungarri izango delakoan daude ekimenaren bultzatzaileak.

Liburuak 8 eurotan dago salgai Tolosako Udaleko informazio zerbitzuan, Aitzol Udaltaldean eta Usabal kiroldegiaren. Halaber, 943 69 74 53 telefono zenbakian ere antolatzen dute etxera bidaltzeko salmenta.

GIZARTEA ▶

Irazkik eskerrak luzatu ditu lagundu dutenei

Irazki elkarte kulturantzak eta Tolosa 750. Urteurrena fundazioak eskerrak luzatu nahi izan dizkie ondoko pertsona eta eragileei, irailaren 17ko erakusketan emandako laguntzagatik: Amaia, Zapiain sagardotegia, Roberto Ruiz, Insalus, Hezkuntza Esparru, Idoia Lasa, Rubio, Nekane Galparsoro, Txitxi, Nekane Arsuaga, Zuriñe Arsuaga, Cristina Roper, Miren Barberia, Idoia (Bar Igarondo), Bar Iratxo, Begoña Zubiet, Angel Sandimas, Tolosa Casino, Javi eta Elena.

EUSKARA ▶

Aitzol euskaltegiaren izena emateko azken egunak

Aitzol euskaltegiaren eskolak hasi badira ere, talde batzuetan plazak daude. Beraz, joateko asmoa dutenek azken aukera dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leiza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostia-ko autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

Beti Alai
jatekoa

Garaian garaiko janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Tolosako jatetxe
baterako sukaldaria
behar da

943 65 10 59

GIZARTEA ▶

Alde Zaharreko lokalei irtenbidea eman nahian

Jarduera ekonomikoak ezartzeko lehiaketa publikoa iragarriko du Erretengibeleg laster

I. ETXEBESTE

Erretengibeleg, Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko udal sozietateak, Alde Zaharreko lokal hutsetan jarduera ekonomikoak ezartzeko laguntzak emateko lehiaketa publikoa iragarriko du hemendik gutxira. Honetan datza laguntza: lokalaren birgaitze nahiz egokitze obrak egiteko diru laguntzak eta lokalaren alokairuaren zati bat ordaintzea. «Eskaearen aurkezpena errazteko, euren lokalak errentan jartzeko prest dauden jabeen zerrenda osatu nahi dugu, eta, bide batez, diru laguntzetan interesatuak dauden eskura ipini», azaldu du Erretengibelego arduradun Angel Urangak. Hala, ekimen horretan parte hartzeko interesa dutenek Erretengibelego bulegoetan (Plaza Zaharra, 10) eman beharko dute izena, urriaren 14a baino lehen.

MUSIKA ▶

Bonbereneako txaranga kalera aterako da gaurkoan

I. ETXEBESTE

Usabal kirol eta aisialdi gunearen inaugurazio ekitaldi ofiziala dela eta, kalera irten-go da gaur Bonbereneako txaranga. Ostiralean, berri, kontzertua izango da Bonberenean: Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons taldeak ariko dira.

MUGIKORTASUN ASTEA ▶



Carme Miralles i Guash, atzo, udaletxean mugikortasunaren inguruan hitzaldia eskaintzen. I. ETXEBESTE

Hiriaz gozatzeko eskubideaz eta beste

Mugikortasun Astearen harira, hitzaldia eskaini zuen atzo udaletxean Carme Miralles i Guash, gai horretan aditu denak

IRATXE ETXEBESTE

Desplazamenduen batuketari deitzen dio mugikortasuna Carme Miralles i Guash Bartzelonako Instituto de Estudios Regionales y Metropolitanos (IERMB) erakundeko zuzendaria. Geografian doktore eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle, mugikortasunarekin zerikusia duten kontuetan eta hiriko garraioetan aditu ere bada; hain zuzen ere, lurraldetasunaren, kohesio sozialaren, generoaren eta jasangarritasunaren ikuspuntutik aztertzen du mugikortasuna, eta Mugikortasunaren Astearen baitan hitzaldia eskaini zuen atzo Tolosako udaletxean *Mugikortasuna eta generoa* gai hartuta.

«Hiriaz gozatzeko eskubidea, bakarrik, hiriak berak eskaintzen dituen ondareak, zerbitzuak eta jarduerak eskuragarriak baldin badira» gauzatu da bere hitzetan. Eta eskuragarritasuna «pertsonek ba-

koitzak bi toki ezberdinen arteko distantzia gainditzeko duen aukeren arabera» neurtzen bada, horixe izango da norberaren hiritartasun eskubidearen isla. Hau da, pertsona edota talde guztiek duten eskuragarritasunaren espazioaren eta denboraren eremua inguruan duen lurralde antolaketak definitzen du, eta baita, pertsona horiek dituzten harremanen loturak, errenta mailak, generoak ezarritako rolak, adinak edota jatorri soziokulturalak ere.

Konplexutasun hori kontuan hartuta, «eskuragarritasuna ezin da modu orokor batean aztertu»; ez, behintzat, hiritarren artean dagoen ezaugarrien eta aukeren aniztasuna alde batera utziz. Hala, emakumeak garraio publikoen erabil-tzaile nagusiak diren eta oinezkoen artean gehiengoa osatzen duten gizarte batean, Carme Miralles i Guash-en ikuspuntua eta iritzi aztertzea garrrantzitsua da, hiriko mugikor-

tasun eredu berri baten garapena ekarriko duelako, eredu hori konplexua (bere funtzionamenduan) eta jasagarria (halabeharrez) izango delarik.

«Paradigma iraunkorra»

Miralles i Guash dio XX. mendekoa paradigma moderno izan den bezala, XXI. mendekoa paradigma iraunkorra izango dela, eta, ildo horretan, transizio garaian gaudela: «Mugikortasunaren inguruan egiten ari gara gaizki egiten ari garela jakin badakigu, baina ez dakigu nola egin behar dugun hobeto». Izan ere, hiriak «oso politak» omen dira diseinatutakoan, baina «bizitzera-koan sortzen dira disfuncioak». Horren adibide dira, besteak beste, unibertsitateak eta ospitaleak hirigunetik kanpo eraikitzea. «Hirigintza plana egiterakoan, norbaitek pentsatu al zuen ikasleek eta gaixoei baduten aukera, beren kabuz, zentro horietara joateko?».

GIZARTEA ▶

Guinness errekorrekin inauguratuko dute Usabal

Carlos Peña kirolari tolosarrak saiakera egingo du gaur; 24 orduz igeri egingo du

I. ETXEBESTE

Carlos Peña kirolari tolosarrak Guinness Errekorren Liburuan sartzeko ahalegina egingo du gaur eguerdian Usabal kirolguneko igerileku estalian, 24 orduz bizkarrez igerian eginez. Ahalegin horrekin egingo dute kirol eta aisialdi guneko inaugurazio ekitaldi ofiziala, eta, besteak beste, bertan izango dira Gipuzkoako Ahalduen Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatu Fernando Tapia eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Zuzendari Nagusi Iñaki Ugarteburu, Tolosako alkate Jokin Bildarratzekin batera; 11:00etan hasiko dira inaugurazioko ekitaldiak.

Igerilarri tolosarraren saiakeraz gain, askotariko ekimenak antolatu dituzte udal arduradunek gaurko eta bihar-ko. Esate baterako, futbol partiduak, saskibaloi txapelketa eta haurrentzako ekimenak izango dira egun osoan. Gainera, bertara hurbiltzen direnek doakoa izango dute kanpoko igerilekura, solariu-mera eta fitness aretorako sarrera 14:00etatik 20:00etara. Bihar 09:00etan zabalduko dituzte kirolgune berriko atea, eta 20:00ak bitartean izango dira ekintzak parte hartu nahi duten guztientzat. Ordu horretan emango diete antolatzaileek amaiera inaugurazio ofizialeko ekitaldi guztiei.

Hala eta guztiz ere, Carlos Peñaren jarduna izango da guztietan ikusmin handiena piztuko duena, bihar eguerdian jakin ahal izango baita bere helburua lortzen duen ala ez.

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.
Suhitzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi

lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur eskola publikoak. Haur

zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.
Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak,

Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udaletxerako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA



Jolaserako aukera dute haurrek haur txokoan. I. GARCIA

Galtzagorri haur txokoa martxan jarri dute Otaño eskolan

Eskola orduak hasi baino lehen eta amaitu ondoren funtzionatzen du zerbitzuak, helburu hezitzaileekin

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan Galtzagorri haur txokoa jarri du martxan Gonagorri elkarteak. «Gurasoek eskola ordutegia zabaltzeko beharra azaldu zuten», esan dio Maria Jesus Zaldua eskolako zuzendariak Hitzari. «Gurasoen eta eskolaren artean batzorde bat sortu dugu gaia aztertzeko. Azkenean, asko pentsatu eta gero, Gonagorri elkartearekin hitz egin genuen eta beraiekin haur txokoa aurrera eramatea erabaki genuen».

Gaur egun oso normala da bi gurasoek lan egitea, eta beren lanorduengatik ez zaie erraza egiten haurrak eskolara era-

man eta jasotzea. «Daukagun ordutegia oso ona da etxean dauden gurasoentzako, 09:30etan hasten baikara, baina kanpoan lana egiten dutez gero ez da hain aproposa», dio Zalduak. Horregatik egin zuten eskaera gurasoek, bai lehenago utzi ahal izateko, bai geroago jasotzeko. «Badakigu denbora asko dela haurra eskolan egoteko», azaldu du Zalduak, «baina garbi genuen haur txokoak ez duela izan behar haurren aparkaleku bat, baizik eta denbora horrek hezitzailea izan behar duela».

Haur txokoaren helburua haurraren nortasuna bilakaraztea da, nagusiki jolasaren eta jostailuen bidez. Gonagorri

elkarteko hezitzaileak, Bakarne Regillagak, adierazten duenez, «jolastea hezitzeko modu bat da. Haurrek jolasa behar dute hazteko eta hezitzeko».

Goizean eta arratsaldean dago Galtzagorri haur txokoa zerbitzua. 07:30etik 09:30ak arte, hau da, eskola ordua arte, eta 16:30etik 17:30ak arte. Ikasle guztiari dago zuzenduta, hots, bi urtetik seigarren mailarainoko haurrei. Ez da eman behar izenik. Zerbitzua irekita dago, eta beharrez arabera erabili daiteke. Hezitzaileek idazten dituzte haurren izenak eta egindako orduak. 2,50 euro balio ditu orduak, baina ez da ordainduko hilean 70 euro baino gehiago.

IRURA ▶ JAIK



Herensugeak eman du hasiera

I. Garcia ▶ Atzo arratsaldean hasi ziren sanmielak Iruran. Herensugea, ahotik sua zeriola, elizatik udaletxerainoko bidea egin zuen eta horrekin batera hasi ziren herriko jaiak. Ondorengoko barrikotea eta gero, gaur eta bihar ere izango da festa giroa Iruran. I. GARCIA

ASTEASU ▶ KIROLA



Ziklo-kros arrakastatsua

I. Garcia ▶ Arrakasta handia du Asteasuko haurren artean ziklo-kros lasterketak. Atzo egin zuten aurtengo lasterketa, eta herriko ia haur guztiak hartu zuten parte Lamiategiko zelaian prestatuturiko ibilbidean. I. GARCIA

ANOETA ▶

Xakearen txokoa jarriko dute berriro martxan

Xakearen txokoa martxan jarriko dute berriro Anoetan. Urrietik Gabonak arte iraungo du, jarraitzeko aukerarekin. Izena emateko udaletxera jo behar da. Ordutegia zehazteko bilera asteartean izango da, 18:00etan, udaletxean.

VILLABONA ▶

Endika Abril-eko partida bertan behera gelditu da

Endika Abril Errebote Txapelketako partida jokatzeko auzen bihar. Baina, antolatzaileek adierazi dutenez, bertan behera gelditu da partida hori. Izan ere, Haridoiko taldeak ezin duela jokatu jakinarazi du.



Sartu euskararen Xarean,

Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.



Irurako Udala



BIDEGOIAN ▶ KULTUR ASTEA

Bihartik aurrera XVI. Kultur Astea abian, ekitaldiz blai

Azokak emango dio bihar hasiera, eta hurrengo larunbata bitarte askotariko ekintzez beterik egongo da astea

JULEN GOIKOETXEA

Bidegoiango XVI. Kultur Astea antolatu dute bihar hasi eta igandera bitartean herrian. Bost egunetan zehar, interes handiko ekitaldiak antolatu dituzte, eta guztien gustuak asetzeko moduko ekitaldiak dau- de aurreikusita.

Hasiera emateko, bihar, igan- dea, goiz osoan zehar, Goiazko plazan egur-taila, maketagin- tza, pilotak, zestoak, aintzinako erreminta, larrua eta beste hainbat artisa- lanen erakus- keta egongo da. Erakusketaz gozatzea inguratzen direnek, ikusteaz gain, bertan aurkituko dituen produktuak erosteko aukera ere izango dute. Hori guztia jai giroan burutuko dute herritarrek zein bisitariek. Izan ere, txakolin eta sagardo daste- keta izango da, sardinez lagun- durik, beti ere. Etzi, astelehene-



lazko Kultur Astearen barruan egini-ko azoka. OLAIJA ESKITXABEL

an, izango du jarraipena Kultur Asteak.

18:30ean hitzaldia eskainiko du Izar Arreguik. *Gurasoen z- lantzak gazteen ezaugarrien inguruan* gaiari lotuta joango da saioa; azkenaldian gizarte- an protagonismo handia duen

gaia da, dudarik gabe. Hurren- go ekintza ostegunean, hilaren 29a, izango da.

Oraingoan ere hitzaldi bat izango da, *Menopausia modu egoki batean bizitzen ikasi* gaiari buruzkoa, hain zuzen ere. Asteleheneko hitzaldian

bezala, Izar Arregui izango da hizlaria. Hurrengo egunean, ostiralean, diapositiba bildu- ma bat izango da ikusgai ilun- tzeko bederatzietan. Josu Iztue- taren eskutik, *1000 kilometro lur- raren mugan* bilduma es- kainiko dute, Nairobitarren es- pedizioen inguruan.

Azkenik, larunbata, urriaren 1a, Kultur Astearen azken egu- na izango da. Amaiera izaki, hainbat ekintza antolatu dituz- te egun horri begira. Arratsal- dean zehar, gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek ondo pasatze- ko aukera izango dute. Lehe- nik, 16:00etatik 17:30era, mar- rrazki lehiaketa izango dute. Ondoren, 18:00etan, antzerki emanaldi bat eskainiko du Tx- alo F.M. taldeak. *Hitzak patrika- tan* izeneko antzezlanak ikuste- ko aukera izango da, eta XVI. Kultur Aste-ko azken ekintza txokolatada izango da.

Bidegoiango Udalak herrita- rrei gonbita luzatu nahi die Kul- tur Astearen barruan antolatu diren ekintzetan parte har de- zaten. Aurten izango den XVI. edizioaren barruan, askotariko ekintzak antolatu dituzte, eta guztiek dute helburu herrita- rren parte-hartzea. Beraz, Bi- degoiangoek eta inguruko her- rrietako biztanleek badute zer ikusi, zer entzun eta zer ikasi datorren aste osoan zehar lu- zatuko den Bidegoiango XVI. Kultur Astearen baitan burutu- ko diren ekintzetan.

ALDABA ▶

Gaur iluntzean hasiko dira San Miguel jaiak

19:00etako txupinazoari patata tortila lehiaketak emango dio segida

J. GOIKOETXEA

Mikel Goiaingeruaren jaiak ospatuko dituzte gaur, bihar eta ostegunean, Aldaban. Urtero legez, udazkeneko haizeak ekarriko du aurten ere festa usaina eskualdeko txoko horretara.

Gaur arratsaldean emango diete hasiera jai- ei. 19:00etan botako dute festen ha- siera iragartzen duen txupina- zoa, eta jarraian patata tortila lehiaketa egingo dute. 21:00etan zahagiardoa izan- go da pilotalekuan; eta, lehen egunari amaiera emateko, Etxabe anaiekin erromeria izango da.

Bihar, 11:00etan izango den meza nagusiarekin hasi- ko dute eguna Aldaban. Segi- dan, gazteen arteko pilota partidak izango dira ikusgai. Lehenik, Galarraga eta Otae- gi Urretabizkaia eta Maizen aurka ariko dira, eta bigarre- nean Alonsok eta Artolak Iburgureni eta Olanori egin beharko diete aurre. 18:00- etan, II. Artzai Txakur lehi- aketa egingo da, eta iluntzean eta gauean Jexuxen Trikiti Jazbana izango da entzun- gai.

Ostegunean, San Miguel eguna, 11:00etan meza na- gusia izango da. Jarraian, her- ritarrentzako hamaiketako izango da, eta gauean herri afaria egingo dute bertako jatetxean. Festei amaiera emateko, Triki-Bertso-Txis- te-Festa izango da, Joanito Mendizabal eta Joxe Ramon Aldasoro txiste kontalarien eskutik.

EUSKARA ▶

Tolosaldeko UEMAKo herriek eskualdeko helduak euskalduntze alfabetatzera bultzatu dituzte

Tolosako Aitzol udal euskaltegian eta Tolosaldeko AEKn dago izena emateko aukera

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko UEMAKo herriak, hau da, Aduna, Irura, Anoeta, Ikaztegieta, Baliarrain, Oren- dain, Leaburu-Txarama, Be-

launtza, Elduain, Orea eta Li- zartza, helduen euskalduntze- alfabetatze prozesuaren alde azaldu dira. Udal horiek «gure herriak euskaldunak direla al- darrikatu» dute, eta udaletxe

guztiekin euren lana «euskaraz burutzeko erabakia» hartu du- tela ere baieztatu dute. Hori dela eta, herritarrek izena ematera animatu dituzte. Ho- rretarako, Tolosako Aitzol udal

euskaltegian eta Tolosaldeko AEKn izango dute aukera. Ma- trikula epea oraindik zabalik dago, eta ordutegi arazorik ez da izango, autoikasketa meto- doaz ere baliatuko direlako.

Carpintería ATARI, S.L.
ARROZTEGIA
Aroztegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak. Eskailera eta altzariak neurria. Etxebizitzetako eta likal komertzialerako aroztegia.
E-maila: catari@euskalnet.net
Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Tel.: 943 69 01 40 - Faxa: 943 69 34 29

Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Tel.: 943692205 • Faxa: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURA

Irurako Ikastola
Jai zoriontsuak pasa!
ikastolako tabernan elkar ikusiko gara
San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

IBARRA ▶

Logroñoren aurka
jokatuko du
gaur Ibarrak

Ibarra areto futbol taldeak gaur jokatuko du denboraldiaren lehen partida. Belabieta kiroldegian izango da, 18:30ean, Logroñoren aurka.

OSASUNA ▶

Gripearen
aurkako txertoa
hartzeko aukera

Ibarraldean gripearen aurkako txertoa jartzeko ordutegiaren berri eman dute. Ibarrran, Berastegin eta Lizartzan, egunero erizainaren kontsultan egin ahal izango da. Elduainen hilaren 27an eta urriaren 18an, 12:00etan; Elduan urriaren 6an, 12:30ean; Txaraman hilaren 27an, 09:30ean; Leaburun hilaren 29an, 09:30ean; Belauntzan urriaren 6an, 09:00etan; Berrobin, asteazkeneko; Orexan hilaren 28an; eta Gaztelun hilaren 29an. Txertoa hartzeko alde zurekin orduek eskatu beharko da.

LEABURU ▶

Bihar Jubilatuko
Eguna ospatuko
dute herriak

Bihar Leaburun Jubilatuen Eguna ospatuko dute. 12:00etan meza izango da Leaburuko San Pedro elizan, ondoren dantza saioa izango da ikusgai herriko dantzariaren eskutik, eta toka txapelketa ere egingo dute. 14:00etan, berriz, bazkaria egingo dute trikitilariak alaituta. Txaramako herritarrei jakinarazten zaie autobusak antolatuko dituztela Leaburura joateko; 11:20ean kartero ondoko autobus geltokian eta baratondo ondoko autobus geltokian, eta 11:25ean paelera ondoko.

SEGA ▶

Erasun, Aranalde,
'Urki' eta Mitxelena
bihar txanda librean

Txapelketako finalean aritu ziren lau segalariak bikoteka ariko dira; Hernanin 12:00etan izango da ikuskizuna



Erasun eta Aranalde Mitxelena eta Urki-aren aurka ariko dira biharko apustuan. ANDONI CANELLADA / A. PRESS

IÑIGO TERRADILLOS

Herri-kirol zaleak zorteko daude, izan ere, bihar eguerdian goi mailako segalarien arteko apustua izango da ikusgai Hernanin. Hain zuzen ere, Juan Manuel Erasun zizurkildarra, Jesus Mari Ormaetxea Urki orendarra, Mikel Aranalde gazteluarra eta Bixente Mitxelena Oiartzungo ariko dira nor baino nor.

Lau segalariak pasa den igandean Errezilen izan zen Euskal Herriko Segalarien Txapelketako finalean aritu ziren. Erasun izan zen txapelketa eta atzetik sailkatu ziren Mitxelena, Ormaetxea eta Aranalde. Biharkoan binaka jokatuko

dute; txapelketako lehena eta laugarrena, hau da, Erasun eta Aranalde, bigarrenaren eta hirugarrenaren aurka lehiatuko dira, Mitxelena eta Ormaetxearen aurka, beraz.

Hernaniko Galarreta pilotalekuaren ondoan dagoen Jauregi jatetxekoek proposatu zuten segalariari apustua egitea. Garai batean txapelketa ugari egingen ziren jatetxeko zelain, eta hura berreskuratu nahian-edo proba berezi bat egitea adostu zuten, orain arte segan egin ez dena. Segalariak bikoteka txanda librean ariko dira, beraz, bikotekide bakoitzak nahi duenean eskatu ahal izango du erreleboa; probak izango duen beste berezitasuna, berriz, sega norberak zo-

rozotuko beharko duela izango da. Teknika eta azkartasuna erabili beharko dituzte segalariak apustuan. Izan ere, horrek egingo du antolatzaileen esanetan ikusgarria eta erakargarria izatea ikuskizuna, oso bizia eta azkarra izateak.

Aste honetan egin duten entsegua segalariak oso gustura geratu dira eta bikotekin ederki moldatu direla azaldu dute. Halaber, gustura daude, eta jendea gonbidatu nahi dute proba «oso entretengarria eta berria» izango baita.

Lau segalari onenak bilduko dituen hitzordua bihar izango da, 12:00etan, Hernaniko Galarreta pilotalekuaren ondoan dagoen Jauregi jatetxearen berlartean.

LIZARTZA ▶

Gaur eta bihar
Kaxianoren
omenezko
nagusiak

I. TERRADILLOS

Gaur eta bihar egingo dituzte Lizartzan Kaxianoren omenezko ekitaldi nagusiak. Gaurkoan herritarrek parte hartuko duten jaialdia izango da, 19:30ean hasita; eta biharkoan, besteak beste, Kaxianoren omenezko eskulturaren agerpena, herri bazkaria eta ondorengo jaialdi berezia izango dira. Antolatzaleek inguruko herritar guztiak gonbidatzen dituzte festara.

EGITARUA ▶

GAUR

19:30. Herriko artistek eskainitako jaialdia: Kaxianoren pasarteak irudikatuko dituen antzerkia, soinu-joleak, txistulariak, dantzariak, trikitilariak, herriko eskola, txaranga, garaiko orkestra, Kaxianoren abestiak, bertsolariak eta dultzaineroak izango dira.

BIHAR

10:00. Goiz deia, instrumentu ezberdinekin.
11:00. Meza nagusia: Alegiako Txintxarri abesbatzak Kaxianoren meza abestuko du. Bertsolariak: Lizaso, Lazkano eta Agirre.
Ondoren. Kaxianoren omenezko eskulturaren agerpena, Lizaso, Lazkano eta Agirre bertsolariekin.
14:00. Herri bazkaria pilotalekuan.
Ondoren. Jaialdia bertsolariekin, akordeonistekin, trikitilariekin eta inguratu nahi duten musikariak eskainita.

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Inketa. Carlos Peñaik lortuko al du asteburu honetan Guinness errekorra egitea? Oso parekatuta daude emaitzak, jaso ditugun botoen arabera. Zer iritzi duzue? Eman zure botoa eskualdeko egunkariaren web orrian.

Bo: % 55
Ez: % 44

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau ordu lan egiteko. Interesatuak deitu 675 70 11 78 telefono zenbakira.
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

SALGAI

Autoa. Seat Cordoba 1.6 l. Lau urte eta 26.000 kilometro. Garajeen egona. Prezio negoziagarria. Interesatuak deitu 636 14 97 61 telefono zenbakira.
Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu gauetan 615 75 57 62 telefono zenbakira.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu igogalluarekin Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisu Belate ibiltokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian
Salgai (Ibarra). Pisu San Inazio auzoan. Guztin berriua, 244.000 euro
Salgai (Tolosa). Pisu San Frantziskon, 126m2. Garajearekin.
Salgai (Tolosalde). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Babiller Zakilbia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementan kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea P. de Tolosa kalean, Araba Etoridorian, B. Zakilbia, Igarondo.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

LEITZA ▶ LEITZAKO I. PILOTA TXAPELKETA

Aurreneko txapelketa honetako irabazleak gaur erabakiko dira

Goizean, 09:00etan hasita, sei mailetako finalak jokatuko dituzte Amazabal pilotalekuan, azkeneko jaialdian

JAIONE ASTIBIA

Hilaren 3an hasi zenetik, aste-bururo, Amazabal pilotalekuan jokatuko den Leitzako Eskuz Binarako I. Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da dagoeneko: bihar, igandea, 09:00etan hasita, sei mailetako finalak jokatuko dituzte bertan, gazteenetik hasi, benjamin mailakoak, eta zaharrenetarako ordenean.

Finalerdietan, gazteen arteko partiduetan, alde nabarmeneko markagailuekin bukatu zituzten lanak, orohar, «zaila baita astebururo ongi aritzea, urduritasunak baztertuta», azaldu zuten antolatzaileek. Benjaminetan, alebinetan eta infantiletan, hurrenez-hurren, Altuna bixkiak eta Olano-Altuna, Arozena-Unanua eta Joldi-Arztimuño, eta Aranburu-Zabaleta eta Jaunarena-Iraola kanpoan gelditu ziren. Maila hauetan Aurrerako eskolako ordezkarietatik Olano, Aranburu, Jaunarenak ezin izango dute aurrera jarraitu; bai, ordea, Sagastibeltzak.

Helduagoetan, berriz, partidua berdina suertatu ziren, tanto bat edota biko alde bakarra izan zutenak, orohar «maila handiko partidua», baieztatu zuten. Gainera, kadeteen, gazteen edota helduen maila hauetan, bertako eskolako zazpi jokalaritan ikusteko aukera izan zen: Alduntzin, Sagastibeltza, Lansalot, Betelu eta Bengoetxea kanpoan gelditu ziren; gainerakoak, biharko finaletan ikusteko aukera izanen da: biak aresoarrak, Alus-



Esaterako, Etxeberria-Beraza txapelaren bila doaz. J. ASTIBIA

FINALAK ▶

Bikoteak hauexek dira lehian:

BIHAR, 09:00ETAN

Benjaminak. Sagastibeltza-Garaio / Untxalo-Aizpuru.

Alebinak. Ijurre-Larraia / Etxeberria-Beraza.

Infantilak. Madariaga-Lana / Ansotegi-Aizpuru.

Kadeteak. Alustiza-Leunda / Iturrioz-Madariaga.

Gazteak. Urrutia-Mitxelena / Andreu-Larrinaga.

Helduak. Olazabal-Hrureta / Renobales-Tabar.

tiza kadetetan, eta Olazabal helduetan.

Antolatzaileen hitzetan kasu hauetan maila handiko finalak ikusteko aukera izanen dela aitatu zuten bereziki. Horren frogamodura nabarmendu zuten, helduenean esaterako, Euskal Herrian zehar jokatzen diren torneoetan finaletan aritzen diren pilotariak daudela hementxean ere, eta hori «ikuskizuna ziurtatuta» dagoenaren berme dela.

Beraz, pilota jaialdi dotorea ikusteko aukera hortxe dago, bihar goiz osoko pilota festa izanen da eta Amazabal pilotalekuan.

LEITZA ▶ AIZKORA

Jon Rekondo Nafarroako txapelaren bila doa

Iruñeko Huarten jokatuko duen finalean beste lau aizkolarirekin lehiatuko da

J. ASTIBIA

Jon Rekondo leitzarrak bihar du jokatzeko Nafarroako Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketako finala, Iruñeko Huarteko Toki Alai pilota lekuan, 17:30etik aurrera.

Rekondorekin, beste lau aizkolari lehiatuko dira: Luis Mari Belarra doneztebearra, Jon Telletxea eta Jesus Etxeberria, Beintza-Labaiengoak biak, eta Dabid Amillano altsasuarra. Egin beharrekoa lana, berriz, bina kanaerdiko, bina 60 ontzako eta beste bina oinbiko ebakitzea izanen dute.

Rekondok HITZARI adierazi zionez, «lana serio samarra da. Oinbikoak jada enbor korrorak direla esan liteke, eta lana serio egin beharko dugu, eta gainera, azkar», zionez. Bera «itxaropentsu» dago, sailkapeneko jardunaldietako

frogak irabazita iritsi baita finalera: «Eginahal guztiak eginen ditugu», baieztatu zuen. Bihar berarekin lehian ariko diren aizkolarietatik, «ongi zaindu beharrekoak» dira leitzarrentzat bai Telletxea eta bai Belarra bera ere, «horiek ere beren lana egitera joanen dira eta erne ibili beharko dugu».

Final hau irabazten duen aizkolaririk txapela bera eta Nafarroako Lehenengo Mailan aritzeko saria eskuratuko du. Horretarako animoa emateko, Rekondoren jarraitzaile asko bertaratu da Leitzatik.

Final honekin batera, aipatzekoa da Uharteko herri kirol jaialdi horretan, bestalde, Euskal Herriko gizonezkoen eta emakumezkoen Soskor Biltze Txapelketa jokatuko direla, baita emakumezkoen Arpana Txapelketa ere.

LEITZA ▶

Aurrerak gaur beharrean bihar jokatuko du

Aurrera eta Aralar Mendiren arteko partidua, atzokoan, gaur arratsalderako iragarri genuen, jokalariek partidua aurreratzeko eskaria egina baitzuten, hain zuzen, Aralar Mendikoekin adostu ondoren. Baina Nafarroako Federazioak ez du eskaria onartu, nonbait uhartearrei «dei bat egitea ahaztu» zitzaielako, eta ondorioz ez dute partidua aurreratzetik izanen, eta bihar jokatuko dute: Aurrera-Aralar Mendi, beraz, bihar 17:30etik aurrera, Arkixkil futbol zelainan.

LEITZA ▶

Ibai Bengoetxeak Frontis-ekin akordioa sinatu du

Ibai Bengoetxea leitzar pilotari gazteak Frontis enpresarekin akordioa sinatu berri du, bi urtetarako akordioa sinatu ere. Bengoetxeatarren adarreak zazpigarrena den honek, gainera, «laster» egitekoa omen du profesionaltarako jauzia, hain justu atzo bertan eta berak jokatuz Leitzako Amazabal pilotalekuan hasi zen DV pilota lehiaketa bukatzen denerako, zioten iturri desberdinek. Bengoetxeak 20 urte ditu eta, beste beste, gauza bikaineko aurrelaria da.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberriak ▶



**Inazio
Goñi Garin**

Zure besotan bataiatua mundu hontara sortzean zure besotan lokartuko naiz gauero oheratzean.

Zure iloba Mari Karmen eta Joxe Mari, Saioa eta Oihane

AMEZKETA, 2005eko irailaren 24a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Larraul. Haur eta gazteen aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du Hezkide Eskolak (www.hezkide.org, 943 31 14 74) Larraulgo baserri batean urriaren 8tik maiatzaren 6ra. Zuzendariena, berriz, azarotik martxora izango da. **Lizartza.** Herriko artisten jaialdia Kaxianoren omenez, 19:30ean: bere bizitzaren pasarteekin antzerkia, soinu-joleak, txistulariak, dantzariak, tritilariak, herriko eskola, txaranga, garaiko orkestra, bere abestiak, bertsolariak eta dultzaineroak.

Tolosa. Usabalen inaugurazioa, 11:00etatik aurrera. Irekiera ofiziala, Carlos Peñaren Guinness errekor saiakera, scalextric, futbola, areto futbola, saskibaloia, ping-pong txapelketa...

Tolosa. Iturriza jubilatutako elkartek irteera antolatu du San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).

Villabona. Tiro, toka eta bote txapelketak; ondoren, txistorra jatea, Biltoki elkartearen. Jubilatutako Astearen baitan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren lanak. Hilaren bukaera arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte ikus daitezke Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruizen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

Tolosa. Jaime Miquelaren lanak. Urriaren 3a bitarte, Fronton kafetegian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Goiko irratia (107 FM)

13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



SAIOA ETA CARLOS

Egun berezi honetan besarkada bat denontzat. Zorionak, Maite.



Herri guztietan daude, xebebrekeriak, kantatzeko, kontatzeko... noizko lepotik heldu eta parrandetako kantaldiak? Urte askoan, Maite eta Iker. Zure koadrila, kar, kar, kar!



Hik bultza gogor hortikan, ta bultza guk hemendikan, ikusiko den nola nola, laster eroriko den. Urte askoan, Maite! Eta, goiz xamar bada ere, baita zuri ere, Iker!

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetzako, urteko ezitak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri!
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mendea, argazki bi egun lehenago ekarri. Maita esker!



URTE ASKOAN

Haritz Mujika (Asteasu). Gaur 10 urte handi egiten dituzte gure ebeko mutilaiki. Muxu handi bat ebekoan partetik.



URTE ASKOAN

Julen eta Irati Albeniz (Tolosa). 8 eta 2 urte bete dituzte. Zorionak ebekoan partetik.



URTE ASKOAN

Olatz Sagastume (Amezketan). Atzo 15 urte. Zorionak Sara eta Inharen partez.



Zu Parisera zure azukre koskorra bisitatzen. Egun berezi honetan zure falta somatzen dugu. Eutsi goiari. Ebekoak.



URTE ASKOAN

Aitziber Aiestaran (Ibarra).

Atzo 4 urte. Familiaren partetik eta, bereziki, Ane.